

Arabako Foru Suhiltzaile giza taldea osatzen dugunok, bai gure parkeetako eguneroko jardunean, bai larrialdi irteeretan, egunero bizi ari garen egoera larria salatzeke elkartu gara gaurkoan.

Borroka askoren ondoren, egunean hogeitau orduz Lurralde Historiko osoari eztaldura ematen dion zerbitzu profesionalaren parte izateaz oso harro sentitzen gara, baina, gure zerbitzuaren egunerokotasuna ezagutuz, eztaldura hori jasotzen duen biztanlengoan dauzkagun gabezi eta urritasun nabarmenak ezagutarazi behar direla uste dugu.

Arabatar gizarteari kalitatezko zerbitzu ona emateko ezarritako gutxieneko behar diren langile kopuru gabeziak, profesionalak arriskuan jarritz, oinarritzko segurtasun estandar batzuk ezin direlako mantendu. Egun askotan, aurreikusteko aukera izan arren, egoera hauei ez zaie konponbiderik eman kudeaketa okerragatik edo kudeaketa ezagatik.

Zenbait lan zehatz, material espezifikoak eskatzen dituztenak, burutzeko baliabide eta formakuntza egoki baten falta, eta egoera honen aurrean ez Zuzendaritzak ez eta Zerbitzuko Buruzagitzak erantzunik ez dute jakin eman. Konpetentzia ezberdinak eta anitzak dira gure gain hartutakoak eta, zoritxarrez, guztietan ez ditugu segurtasunez aritzeko beharrezkoak diren baliabideak, honez gain, gure interbentzioak era ezin hobean garatzeko oztopo ere badira.

Gure langile eskubideen urraketa egoera, esate baterako, greba eskubidearen ukapena, eguneroko langile kopuru minimoa aurrez aldatuz.

Lan baldintzen negoziazioaren egoerak, Langileen Batzarrarekin adostuak izan arren, enpresak modu aldebakarrean ez ditu betetzen. Honen ondorioz, mahai negoziazio hauek eskenatoki hutsak bihurtu dira eta langileen ordezkariok ez dugu engainatuak izaten jarraitu nahi.

Lankideei zuzenki egindako erasoen egoerak, Zuzendaritzatik eta Erankude Autonomoko Buruzagitzatik zuzenduak, erabat neurrigabeko auzibide diziplinarioak ezarrita.

Lankide hauek gainera, Langileen Batzarreko hautetsiak dira, beraz, auzibide hauek akuilu izaera argia dutela uste dugu, eta hauen berri jakin genuenetik gure erabateko gaitzespena adierazi genuen.

Honengatik guztiagatik, gaur Arabako Foru Suhiltzaile elkargoa hemen gaude. Herritarrei, aspalditik Zerbitzu barruan konpondu nahi izan ditugun egoerak aurrez aurre adierazteko, baina, uste dugu gaur egun konponbiderik gabe ezin dutenak jarraitu. Gure lana biztanlegoari etenik gabeko zerbitzua eskaintzea da, hogeitalau ordu egunean, hirurehun eta hirurogeita bost egun urtean. Gure salaketek arabar gizarteak eskatzen eta merezi duen kalitatezko zerbitzu profesionala lortzea bilatzen dutela sinisten dugulako, lortu arte ez dugu etsiko, eta hemen zein behar diren leku guztietan defendatuko dugu.

Eskerrik asko.